

Ihesi

UNAI BREA



Euskal Herria ezagutuz:
Otsagabia (Nafarroa)

Aupa Bobo!

Demografia apalak iradokitzen duenari oldartuz, folklore aniztasun ikaragarria dauka Nafarroako Pirineo aldeak. Dantza mota asko kilometro gutxian, eta hain desberdinak... Luzaideren baimenez, ezagunenak Otsagabiak ditu. Luze gabe emango dituzte, irailaren 7 eta 8an. Herria hamaikagarrenez bisitatzeke aitzakia hoberik ez zaigu bururatu.

AMA BIRJINA, ohituraz, bakarrik dabiltzanei agertu izan zaie; leku-kotza bat baino gehiagoren kontrastea deserosoa suerta daiteke, eta hobe batengan uztea ardura. Gero, norberaren fedek erabaki dezala haren hitzak sinetsi ala ez. Otsagabian, duela mende batzuetako artzain batek izan zuen pribilejioa, mendian zebilela. Ardiek ez zuten haren esandakoa ukatu.

Ondo errotutako beste ohitura bati men eginez, herritarrek elizatxoak paratu zuten agerpena gertatu omen zen lekuan: Muskildako Ama Birjinaren tenplu aski ezaguna, dotorea, txikia, bukolikoa. Beti ere bisitatzeke gomendagarria, balizko txangoak arrazoi erantsia du udaren amaierak normaltasunaren mehatxua dakarren honetan, han izaten baitira Otsagabiko dantzak irailaren 8an. Bezperan, herriko plazan.

Zale eta ez hain zaleen kutunetakoa da Otsagabiko dantza sorta. Euskal dantzetan ikusgarriena hau sinatzen duenaren aburuz, esportagarrienetakoa da zalantzarik gabe. Herriaren Barne Produktu Gordinari ere laguntzen dio, ez baitira gutxi Euskal Herri osotik Otsagabiko jaietara joaten direnak

Boboaren eta zortzi *danzante*-en emanaldiaren amua irentsita. Bisitari horietako askok eta askok urtero, edo ia, errepikatzen dute bidaia. Edonondik joanda ere Otsagabira iristeko hartu behar diren ehunka kurbak banan-banan ezagutzeraino agian.

Hainbeste bihurguneri aurre egiteak badu saria: Otsagabia oso ederra da, eta ez da ederragoa inguruko herri guztiak ere halatsu direlako, eta ailegatu orduko asko-

**Otsagabiko dantza sorta
euskal dantzetan
ikusgarrienetakoa eta
esportagarrienetakoa da,
zalantzarik gabe**

tatik igaro garenez begia Pirineotako arkitekturaz asetzen hasia dugulako. Gainerakoak baino bereziki politagoa ez da, beraz, baina badu Otsagabian aireak beste zerbait, giro halako bat, eskualde buru izateak ematen diona edo auskalo zerk. Jaietan,

zer esanik ez. Kaletar amorratuek era honetako txokoetan bilatu ohi duten lasaitasunaren xerka bazabiltza, aukeratu beste garai bat bidaia hau egiteko.

Dantzak ikusteko, tamalez, ez dago oraingo hau besterik, kasualitatez herriko dantzariak zure ingurura hurbiltzen ez badira, hori ere egiten dute eta. Otsagabiar modernoek ez dute lotsarik euren ondarea kanpoan erakusteko, eta dagoeneko ez omen dira haserretzen beste talde batzuek kopiatzen dituztenean. Garai batean, diotenez, ez zuten erakutsi nahi izaten, baina ez egin kasu zurrumurru guztiei. Gure aldetik, ziurtatu egin dezakegu beraiek direla etxean maisu, esan nahi baita Otsagabiko dantzak Otsagabiko dantzariak ematen dituztela hoberen. Pernandoren egia dirudi, baina ez pentsa, Euskal Herrian ez da beti hala gertatzen.

Baina kasu, gogoeta hauetan galduta gabiltzala, herriaren magia gozatzea ahaztu dakiguke. Barkaezina, bi egun soil baititugu Otsagabia arnasteko, dantzek libre uzten diguten denboran, ez gara etorri folklorearen karietara bakarrik, aizue. 7ko goiza baliatu dezakegu Muskildako Ama Birjinaren





Muskildako santutegira sarrera. Bide honetatik joaten dira bertara dantzariak irailaren 8an.

baselizara gerturatzeko, hurrengo goizeko jendetza gabe. Jende asko txo ibiliko da hala ere, seguru. Arratsaldean dantzak dira plazan, baina lasai, hau ez da Zuberora,

Dantzariak *Zirika* egiten, herriko plazan.



urrun ez gauden arren; Otsagabiako dantzak maskarada bezain luzeak balira, herrian ez legoke jadanik gazte bakar bat ere bizirik, hain dira gogorak (dantzez ari gara noski, gazteak eurak ez dira makalak hala ere). Esan nahi duguna da badela astirik karriketant galtzeko, Montxo Armendarizek *Secretos del corazón* filmerako aukeratu zituen karrika ezin pirineotarrago horietan. Eskualdeko beste herriekin alderatuta, Otsagabiak badu abantaila bat norabiderik gabeko paseo horien maitaleentzat: handiagoa denez, kale gehiago dauka.

Ez dira hainbeste hala ere. Hobe, plazan leku egokia hartzea komeni baita. Jendez mukurudago, irailaren 7 guztietan errepikatzen den fenomeno da. Azken hamarkadetan bai bederen, ez dakigu nola zen kontua XVI. mendean, ordukoak dira eta dantza hauei buruzko lehen aipamenak.

Plaza hartuta

Boboaren jantzi gorri-berde ikusgarriek plaza osoa betetzen dute, nola aurreko orrialdeko argazkia. Denen begiak harengana doaz, hain da handia figura honen indarra. Europako artzain gizarteetako folklorean, eta Euskal Herritik irten gabe ere bai, sano ezagunak dira jite honetako pertsonaiak, aurpegi biko mozarroa daraman besterik ez dugu ezagutzen ordea. Ikusmena boboak betetzen digu, entzumena berriz kaskainten hotsari eskaini diogu, dantzariak plaza erdiko beren lekura doazen seinale: Euskal Herriko dantzetan ez dira batere ohikoak kaskaintak, baina Pirineo alde honetan ezagun dituzte, bistan da.

Lau makil-dantza, Pañuelo izeneko zapi-dantza eta Jota. Otsagabiako dantzek egitura finkoa dute, ez pentsa horregatik ehunka urtetan ezer aldatu ez denik, gure kolaboratzaile Oier Araolazak gogorarazten digunez. Adibide bat: Modorro izeneko makil-dantzan, dantzariak makilaz jotzen dute lurra, baratzean lanean ariko balira bezala, zenbait espezialistak



Muskildako Ama Birjinaren eliza.

dio lurra esnatzeko egiten dela hori, emankor izan dadin gero. Badakigu gure arbasoek ez zituztela dantzak libretimendu hutserako asmatu, hemen denak dauka funtzioaren bat, Boboren moztortik hasi eta eskuan daraman makil luzeraino. Kontua da garai batean buelta bat egiten zela lurra jotzen, norbaiti bururatu zitzaion arte gutxiegi zela eta bi aldiz egin behar zela. Gaur egun hala egiten da, itzuli bat eskuinera eta beste bat ezkerreara. Tradizioak gordetzearen benetako esanahia esplikatzeko adibide ederra.

Eta tradizioetan tradizioena, Otsagabiaz den bezainbatean, irailaren 8koa da. Dantzariak mendiko bidetik igotzen dira Muskildako santutegira, errepidez herritik hiruzpalau kilometrorra dagoena, eta han egoten dira, zain, bezperako saioa errepikatzen tenorea heldu bitartean. Eta orduan, Amabirjina ikusi zuen artzainaren artaldea baino askoz handiagoa den jendetzaren aurrean dantzatuko dute berriz, baina badu bigarren egunekoak, kristau atmosferaren eraginez-edo, beste seriotasun bat, edo hala iruditzen niri.

Otsagabia ez da bakarra

Nafarroako alde honetako dantzen aniztasuna goratzen hasi dugu bidea, eta injustua litzateke orain Otsagabiaren auzoki-

deak ez aipatzea. Espazioan mendealdetik ekialdera doan eta denboran urte sasoi gehientsuenetatik igarotzen den alegiazko txango honetan, nahiko eskuman ageri da Otsagabia, mapan nahiz egutegian. Goazen bada ezker muturreraino, Luzaidera, Pazko Igandera edo Aberri Eguna nahiago baduzue. Banaketa administratiboak besterik dioen arren, Nafarroa Beherekoagoa da Luzaide Garaikoa baino, orografia gupidagabeak hala aginduta. Otsagabiarekin batera, inguru honetan bere dantzak hobekien gorde dituen herria da, eta ezin dantza desberdinagorik irudikatu. Herri erdiak hartzen du parte Luzaide-

koetan, Arretxe pilotari ohi ezagunak barne. Non eta haren izena daraman pilotalekuan egiten da arratsaldeko emanaldia, goizekoa kaleetan zehar, biak begi askoren parean. Eta begientzat gozamina da Luzaideko karnabala, bere pertsonaia saldoarekin, bere jantzi konplikatuekin. Euskal Herriak atzerrian sal dezakeen beste postaletako bat.

Bitxiagoa da Auritz, Jaurrieta eta Erronkari Ibarreko dantzen historia, azken urteetan –Jaurrieta-koaren kasuan 40 bete dira aurretik berreskuratuak izan baitira, bertako nahiz kanpoko ikertzaileen lanari esker. Ahaztutako koreografiak, dantzak, urratsak... berpizteko egin diren bideek eztabaida ere piztu dute, batzuetan ia ezerezetik sortu baita zerbait. Baina hori beste istorio bat da, bere kontakizuna merezi duena. Hitz ematen dizuegu ez duzuela luzeegi itxaron behar izango orriotan irakurri ahal izateko. Ez, bederen, Boboa berriz kalera atera arte bezain luze. ■

INGURU ABENTURA

- Arroila Jaitsierak
- Espeleologia
- Zubi saltoa
- Eskalada
- Via Ferratak
- Mendi ibilaldiak
- Elur erraketak
- Orientazioa
- Mendiko bizikleta
- Multiabentura
- Ikastaro teknikoak
- Abentura bidaiak eta askoz gehiago...

- Descenso de Cañones
- Espeleología
- Puenting
- Escalada
- Vías Ferratas
- Banderismo
- Raquetas de nieve
- Orientación
- Mountain bike
- Multiaventura
- Cursos técnicos
- Viajes de aventura y mucho más...

www.inguruabentura.com
info@inguruabentura.com
 Tel: 635 748 948
 San Juan 18
 Albeniz - Asparrena
 Araba